



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Hiru kontzertuk Arriaga Antzokia beteko dute aste honetan

- **Ismael Serranok** bihar egingo du emanaldia, asteartean; **Antton Valverdek** asteazkenean; eta hainbat haur-taldek igandean, **Bilboko Koral Elkarteak** bultzatutako kontzertu batean.

**Bilbo, 2024ko azaroaren 11.-.** Arriaga Antzokiak hiru kontzertu eskainiko ditu aste honetan: elkarren artean oso desberdinak diren hiru musika proposamen. Bihar, asteartean, azaroaren 12an, **Ismael Serranok** kontzertua eskainiko du 19:30etatik aurrera. Abeslari madrildarrak aurreko biretan hasitako bideari jarraitzen dio, antzerki-elementuak dituzten errezitalen aldeko apustua eginez. Musikalki, bere gitarrarekin eta **Jacob Sureda Arbonaren** pianoaren akonpainamendurekin etorriko da Bilbora. Bere ahots nahasezinarekin, Serranok bere hit-ak izango dituen errepertorio bat abestuko du, bere azken diskoetako abesti ez hain ezagunekin nahastuz.

Asteazkenean, hilaren 13an, musika foyerrera lekualdatuko da. Bertan, ikusle talde txiki baten aurrean eta espazioak ematen duen intimitate atsegina horretan, **Antton Valverdek** pianoan abestuko du, 19:30ean. Bere estiloari leial, Valverdek egile ezagunen poemak musikatzeko duen gustu finetik sortzen diren abesti berriak proposatuko dizkigu, hala nola Miren Agur Meaberenak, Karlos Linazasororenak eta Gerardo Markuletarenak. Bere kantu klasikoak ere entzun ahal izango ditugu, entzuleei idazle unibertsalak ezagutzeko aukera eman dietenak, Lizardi, Gandiaga, Lete edo Lauaxeta, esaterako. Kontzertuan **Francisco Herrero** (biolina), **Iván Carmona** (txeloa) eta **Joxan Goikoetxea** (akordeoia) musikari bikainek lagunduta egongo da.

Azkenik, azaroaren 17an, igandean, 19:00etan, Arriaga Antzokian **Bilboko Koral Elkarte**ko talde gazteenen jendaurreko aurkezpena izango dugu: José Luis Ormazabalek gidatutako haur abesbatza eta Jesús Guridi Orkestra, Aritz Labradorren zuzendaritzapean. Horiekin batera, astean behin elkartzen diren bi eskola-abesbatza izango ditugu: María Solagurennek gidatutako Escolapios de Bilbao ikastetxekoa eta José Luis Ormazabalek zuzendutako Lycée Français ikastetxekoa. Elkarrekin kantatzeko, beste talde batzuekin lankidetzan aritzeko eta, batez ere, gelan egindako lana antzoki handi batean erakusteko ilusioak eraginda, hitzordu berezia izango da kontzertua. Agertokian, 200 neska-mutikok eta gaztek musikaz eta ilusioz beteriko jaiak sortuko dute.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)